

ZER DA BI PAUSUTAKO EGIAZTATZEA?

Inork zure pasahitza lapurtzea...
zuk uste baino errazagoa da.



Inork zure pasahitza lapurtzeko arriskua izan dezakezu ohiko ekintza hauetako edozein egiten baduzu:



Webguneetarako sarbide-baimenak ematen badituzu **WiFi publikoko sare** batera konektatuta egonda.



Film, telesail, software eta abarrekoak **orrialde ez ofizialetatik** deskargatzen badituzu.



Mezu elektronikoen esteketan **klik** egiten baduzu.

Bi pausutako egiaztatzeak zure informazioa babesten lagunduko dizu.

Bi pausutako egiaztatzea aktibatzean, zure pasahitzaz gain, pausu gehigarri hau ere beharko da:



Zure telefonora, beste gailu batetara edo posta elektronikoko kontu batetara **igorriko den kode bat**.

Google Authenticator edo Microsoft Authenticator bezalako **egiaztatze-aplikazio** batetara igorriko den kode bat.

Giltza fisiko bat.

Horrela, seguru mantenduko dira zure kontuak, nahiz eta inork zure pasahitza lapurtu.



Aktibatu bi pausutako egiaztatzea konfigurazioan, segurtasunean edo zure kontuen pribatutasuneko aukeretan.

Babes handiagoa zure kontuarentzat

Zure segurtasunerako, aktibatu bi pausutako egiaztatzea eta babestu zure posta-kontuak, sare sozialak eta Interneten erabiltzen dituzun beste zerbitzu batzuk.

